

GLOBAL TRAINING BEKAK 2017: IZEN-EMATEAK

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: EKAINAREN 14TIK UZTAILAREN 14RA ARTE

- Global Training Bekak 2017 programak zazpi erakunde laguntzaile ditu (gehienak beste batzuekin lankidetzan). Erakunde horiek dira beken kudeaketa eta tutoretza gauzatuko dutenak eta baita eskaintza egingo dutenak ere, guztira 410 beka eskainiz.
- Global Training Bekak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailak bultzatutako programa baten baitan daude, baina erakunde ezberdinen bitartez kudeatzen da eskaintza aukera zabala eta irismen handiagokoa bermatzeko asmoz.
- Beka guztiak, zein erakundek kudeatzen dituen kontuan hartu gabe, eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, baita diru-kopuru bera ere, eta aukeraketarako derrigorrezko estandarrak betetzen dituzte (ingelesa menperatzen denaren akreditazioa, aukeraketarako elkarrizketak, eskatutako dokumentazioa batzea, etab.)
- Deialdia hasten den unetik aurrera, hau da, 2017ko ekainaren 14tik aurrera, erakunde kudeatzaile bakoitzak bere webgunean jarriko ditu eskaintzen dituen eskaintzak.
- **Izena emateko prozedura:**
 - 1. Eskaera bakarra:**

Eskatzaile bakoitzak erakunde batean BAKARRIK eman ahalko du izena.
 - 2. Nola aukeratu izena emateko erakunde kudeatzailea:**
 - Eskatzaileak webguneak aztertu beharko ditu eta gehien interesatzen zaionean izena eman, ikasketak non gauzatu dituen kontuan hartu gabe.
 - Ondoko estekan eskaerak aurkezteko epearen inguruko informazioa aurki daiteke eta baita eskaintzen webguneetarako lotura zuzenak ere:
<http://www.euskadi.eus/nazioartekotzeko-laguntzak-dirulaguntzak/web01-a2lehiar/eu/>
 - 3. Erakunde kudeatzailea aukeratutakoan:**
 - Aukeratutako erakunde kudeatzailearen webgunean izen-ematea on line egin ostean, erakunde horren argibideak jarraitu beharko dira izen-emate eta aukeraketa prozesuan zehar.